



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2022eko DEIALDIA

31/2022 EBAZPENA, otsailaren 22ekoa

2022/05/25

HISTORIA

**EPAIMAHAI ZK.:
KALIFIKAZIOA**



DEITURAK

IZENA

NANa

A aukera

GAIA: FRANKISMOA

1946KO NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN EBAZPENA.

"Bere jatorria, izaera, egitura eta portaera orokorragatik, erregimen frankista erregimen faxista da, Alemania naziaren eta Italia faxistaren laguntzari esker antolatua eta gauzatua, hein handi batean. Nazio Batuen Erakundearen Hitlerren eta Mussoliniren aurkako borroka luzean, Francok oso era nabarmen batean laguntza eskeini zien potentzia etsaiei, aliatuen etengabeko protestak izan arren [...]"

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, Espainian Francoren gobernu faxistak [...] espainiar herria ordezkatzeko ez duela sinetsita [...], **Francoren Gobernuari Nazio Batuen Erakundeak sortutako edo haiei lotuta dauden nazioarteko erakundeetan parte hartzea debekatzea gomendatzen du**, bai eta Nazio Batuek edo erakunde horiek antolatu ditzaketen kongresu eta bestelako jardueretan parte hartzea ere, Espainian gobernu berri eta egoki bat eratu arte.

Gainera [...] zera gomendatzen du, arrazoizko epe baten barruan, Espainian ez bada bere herritarrek aukeratutako gobernu bat ezartzen, eta **adierazpen, erlijio eta biltzeko askatasuna errespetatzeko konpromezua eta ahalik eta azkarren herritarrek bere borondatez, bortxa eta larderiarik gabe eta askatasunez, hauteskundeak deitzeko konpromezua hartzen ez badu [...]**, egoera hori konpontzeko neurriak aztertuko ditu Segurtasun Kontseiluak. Era berean, Asanbladak gomendatzen du Nazio Batuetako Estatu kide guztiek Madrilen akreditatuta dituzten enbaxadore eta ministro ahaldun nagusiak berehala erretiratzeko».

1.- **Testuaren laburpena.** (3 puntu).

2.- **Azaldu ezazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren bi adierazpenak eta kontzeptu hauek:** "Nazio Batuek" eta "enbaxadoreak". (2 puntu).

3.- **Testuinguru historikoa:** Francoren gobernuaren erlazioa Hitler eta Mussolinirekin. Erregimen frankistaren jokabidea Bigarren Mundu Gerran. (2 puntu).

4.- **Francoren Erregimena:** Nola eskuratu zuen boterea y bere agintaldiaren etapak. (3 puntu).



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2022eko DEIALDIA

31/2022 EBAZPENA, otsailaren 22ekoa

2022/05/25

HISTORIA

B aukera

**GAIA: ESTATU LIBERALAREN ERAIKUNTZA
BERGARAKO HITZARMENA**

Ejertzito Nazionalako kapitain jenerala Baldomero Espartero 1auna eta Rafael Maroto teniente jeneral 1aunaren artean ospatutako hitzarmena.

1. art. Baldomero Espartero 1auna kapitain jeneralak arduraz gomendatuko dio gobernuari betetzeko Gorteei foruak onartzeari edo aldatzeari buruzko proposamen formala egiteko eskaintza.

2. art. Rafael Maroto Jauna teniente jeneralaren agindupeko armadako kideen jardunak eta jeneralen, buruzagien eta ofizialen graduak eta kondekorazioak aintzatetsiko dira, hark aurkeztuko ditu armadako kidegoen zerrendak, eta askatasuna izango dute erabakitzeke 1837ko Konstituzioa, Elisabet II.aren tronua eta haren Ama Ohoragarriaren Erregeordetza zerbitzatu eta defendatu nahi duten, edota nahiago duten beren etxeetara erretiratu, armak utzita.

6. art. Aurreko artikuluetan adierazitakoa hitzarmen hau berronetsi eta hamabi eguneko epean aurkeztu diren enplegatu zibil guztiei dagokie.

7. art. Nafarroako eta Arabako dibisioak Gaztelakoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa aurkeztu diren baldintza beretan aurkeztu badira, aurreko artikuluetan adierazitako kontzesio horiek berak onartuko zaizkie.

8. art. Baldomero Espartero 1auna kapitain jeneralaren mende geratuko dira Rafael Maroto 1auna teniente jeneralaren agindupeko artilleria kidegoak, arma lantegi eta gordailuak, uniformeak eta hornigaiak.

Bergarako kuartel nagusian berretsitako hitzarmena, 1839ko abuztuaren 31n.

Boletín Oficial de Pamplona, 1839ko irailaren 5ean osteguna.

1.- **Testuaren laburpena.** (3 puntu).

2.- **Azaldu ezazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren bi esaldiak eta kontzeptu hauek:**
“Foruak” eta “Erregeordetza”. (2 puntu).

3.- **Lehenengo Gerra Karlista:** Aurrekariak, faseak eta gertakari nagusiak. (2 puntu).

4.- **Deskribatu eta konparatu bando liberal eta karlistaren ideologia eta laguntza soziala.** (3 puntu).



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2022eko DEIALDIA

31/2022 EBAZPENA, otsailaren 22koa

2022/05/25

HISTORIA

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2022eko DEIALDIA

31/2022 EBAZPENA, otsailaren 22koa

2022/05/25

HISTORIA